

FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Proiektua aurrera eramateko hainbat eragile, aktore eta bazkide kontuan behar ditugu:

- **Gobernu eragileak:** Gobernuak eta berauen zuzendaritzak proiektuko beharrak ulertu eta helburuak aurrerrera eramateko konpromisoa hartu beharko dute. Azken informazioa jasoz, beharrezko diren baliabideak eskuratuz. Enpresan zailtasunak dituzten pertsonak kontutan hartuz eta behar diren baliabideak eskuratzea izango du helburua.
- **Proiektuko taldekideak:** Proiektu inklusibo bat izateko eta bultzatzeko, partaidetza anitzekoa, zailtasunak dituzten guraso, elkarte eta asoziazioak jasoko ditu. Berauengaitik egiten ari denaren balorazioa jasoz eta beharrak markatuz aurrera jo dezagun. Berauen ikuspegiak eta iritziak onartu eta jasoz.
- **Ikastetxeak (zuzendaritza, irakasle klaustroa e.a.) eta bertako orientazio zerbitzuak:** materialen eta zabaldu beharreko orientabideen edukien sorkuntza eta adaptazioa egiten lagunduko dute.
- **Baliabide teknologikoak:** IKT ko taldeak, baliabide egoki, garbi eta eraginkorrak bilatuko dizkigutenak eta laguntza teknologiko erabilgarria luzatuko digutenak. Hala nola Testu hitzaldiak sortzen laguntzen digutenak, informazioa hainbat formatutan nola sortu (audioetan edo irudi-materialetan), software edo irakurtzeko programak e.a. Irakasle, guraso eta haurrei laguntza emango dietenak.
- **komunikazio taldea:** Proiektua saldu, aurkeztu eta zabalduko dutena.
- **Estrategiaren eta adierazleen kontrola** egingo duten eragileak: lana neurtzeko erraginkortasunaren seinale adierazleak sortu, inplantatu eta kontrolatuko dituztenak.
- **Ibilbide berria eta praktika egokituak** markatuko dituzten eragileak: beharrak kontutan hartuz, enpresen politika eta praktikak egokitu eta berrikusiko dituenak.